

## ARIZMENDIARRIETAREN GOGOETEN-BALIOEN OINARRIZKO EGITURA

Arizmendiarrietaren gogoetetan identifikatutako balioak maiztasunaren arabera sailkatzen badira, koadro hau ateratzen da:  
(10 baino gehiagoko maiztasuna duten balioak hautatu dira)

Balioa	Maiztasuna: balioa identifikatu den pentsamendu kopurua	Balioa	Maiztasuna: balioa identifikatu den pentsamendu kopurua
Heziketa	53	Austeritatea	14
Lankidetzeta	46	Askatasuna	13
Eraldaketa (soziala)	39	Lidergoa	12
Pertsona	39	Kontzientzia	12
Elkartasuna	36	Ekintza	11
Konpromisoa	34	Komunitatea	11
Lana	27	Garapena	11
Berdintasuna	23	Inkonformismoa	11
Errealismoa	23	Kultura	10
Erantzukizuna	22	Idealismoa	10
Justizia	17	Berrikuntza	10
Pragmatismoa	17	Hobekuntza	10
Demokrazia	15		

Ez da kasualitatea balioak beren maiztasunaren arabera ordenatetik ateratako emaitza. Lehenik heziketa agertzen da, ondoren lankidetzeta, gero gizarte eraldaketa, persona, elkartasuna, konpromisoa, lana, etab. Balio horien garapen ordenatuak Arizmendiarrietaren pentsamenduaren zati handi baten formulazioa egitea ahalbidetu lezake.

Heziketa da lankidetzaren garapenerako oinarria, eta haren helburu finalista eraldaketa soziala da. Pertsona da gizartearen protagonista. Pertsonak, elkartasunaren, konpromisoaren eta lanaren bitartez, hau da, lankidetzan arituz, gizartean eragiten du gizartea bera eraldatzeko; hala, bidezkoagoa eta humanoagoa bihurtzen du gizartea.

“Multzoak” bektore hauen arabera hedatzen dira:


Pertsona,  
Lankidetzeta  
Gizarte Eraldaketa, eta guztiak honen barruan  
Heziketa.



Grafikoan, sektore bakoitzerako zuzenean lotutako gogoeten kopurua jasotzen da, eta parentesi artean kopuru osoa, bakoitzari zeharka lotutako balioak gehituta.

Lau bektoreen inguruko orbitan pilatutako gogoeten kontzentrazioak argi eta garbi erakusten du Arizmendiarrietak, ororen gainetik, Pertsonen zentraltasuna jarrita eta Lankidetzaren palankarekin, Gizarte Eraldaketa bilatzen zuela enpresen eraldaketaren bitartez. Eta, horretarako, oso argi zeukan maila guztietan Heziketa beharrezkoa zela, herriak aske egiten dituen eta aukera berdintasuna bultzatzen duen tresna gisa.

Pertsonen bektorean, duintasunerako zazpi balio agertzen dira:




Pertsonak goratzen dituzten balio zorrotzak, gizarte justuago eta gizatiarrago batean elkarrekin bizitzeko beharrezkoak:

Konpromisoa (koherentzia, kontzientzia, zintotasun eta egiazkotasunarekin),  
Elkartasuna,  
Lana (esfortzu eta ahaleginarekin),  
Errealismoa (inkonformismoaren eta pragmatismoaren arteko orekatik),  
Austeritatea eta  
Erantzukizuna.

Hori guztia, betiere heziketaren laguntzaz, balio horiek libreki eta ezagutzatik abiatuta barneratuko dituzten pertsonak egiteko.

Lankidetzan jarduteko ere, efizientea izango bada eta egiazko Gizarte Eraldaketan eragingo badu, balioak beharrezkoak dira.



Hauek bezalako balioak:


Lidergoa, idealismoa, errealismoa eta pragmatismoa uztartuz,  
 Norbera Hobetzea, austeritatean, ekintzan eta efizientzian oinarrituta,  
 Konpromiso zintzoa, kontzientziaz, koherentziaz eta egiazkotasunez,  
 Elkartasuna,  
 Lana, dena emanez, parte hartuz eta erantzukizunez.  
 Horiek guztiak, etengabeko prestakuntzaz lagunduta, gakoak dira Lankidetza  
 eraldatzailerako, zeinak komunitatearentzako aberastasuna sortuko duen.

Gizarte Eraldaketa lortu nahi duen gizarte batek ere balio partekatuak behar ditu:



Benetako eraldaketa lortzeko, hainbat balio partekatu behar dira, hala nola:

Berdintasuna, duintasunetik eta pertsona guztien aldeko errespetutik.  
Justizia igualitarioa, iraultzailea den aldetik.  
Demokrazia,  
Askatasuna,  
Komunitatearen bizipena, parte hartzean oinarrituta,  
eta triangelu honetan oinarritutako Garapena: Austeritatea-Aurrezteak-Berrikuntza-Inbertsioa.



Eskema simple-simple horiekin Arizmendiarrietaren gogoetatik atera dezakegun filosofiaren gaurkotasun erabatekorantz zuzendu nahi dugu arreta.